

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5999

175/2018 DEKRETUA, abenduaren 3koa, Iñaki Calonge Crespo jauna, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide izendatzen duena.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko Legearen 6.3 eta 7.2 artikuluetan ezarritakoari jarraituz eta Batzorde horrek erabili behar dituen gaiei buruz duen gaitasun profesional egiaztatua kontuan hartuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2018ko abenduaren 3an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Iñaki Calonge Crespo jauna, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide izendatzea.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 3an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.